



Azkena, Lakuntzan

ETXERA

Hatortxurock jaialdiaren 30. edizioa ospatzen ari da Lakuntzan / 2-4

EKITALDI NAGUSIA · Uztailak 27 13:00
Berriain Gunea · Lakuntza



Festa garai betean sartuta

Arakil, Etxarren, Bakaiku eta Olatzagutian ospakizunak daude / 7-9

Albéniz
Quesos

*Ongi pasa
Olatziko festetan!*



SINADURAK



AUTOPISTA
ELEKTRIKORIK
EZ / 5



RAF
ATXURI / 5



IRATI PELLEJERO
/ 14

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Hatortxurock jaialdiaren 30. eta azken edizioa ospatzen ari da Lakuntzan, atzo hasi eta igandera arte. Antolakuntzak prestatutako bost guneetan -Hator Hator, Etxera, Auzolana, Elkartasuna eta Herriye- ehun taldek baino gehiago ariko dira, tartean Nafarroa 1512, ZETAK eta Muga Zero sakandarrak. Zita berezi honetan hainbat talde eszenatikira itzuliko dira ere. Hatortxurocken agurrarekin esparru ezberdineko 22 eragilek bat egin dute eta manifestua sinatu dute: Sare, Harrera, Etxerat, Nafarroako Torturatuen Sarea, Sortu, EH Bildu, Alternatiba, Eusko Alkartasuna, Ernai, Ikama, Xuti, Gazte Abertzaleak, Bf, AEK, LAB, EHNE, ELA, Steilas, Hiru, 40 Minutu, Ezkerraldea Fest eta EDH. Hatortxurock 1999an jaiotzen, Berriozarren, "Euskal preso politikoko, iheslari eta deportatuen eta haien senideen defentsarako tresna gehigarri gisa". Auzolana jaialdiaren oinarrietako bat, eta azken jaialdia bide beretik joan dela gaineratu dute antolakuntzatik. Uztailaren 27an, 13:00etan, ekitaldi nazionala egingen dute jaialdia, Beriain gunean, *Etxera!* lelopean.

Hatortxurock jaialdia hasi aurretik prestaketa lan handia izan dute azken asteetan Oihan Erkiza eta Nerea Eugi antolakuntzako kideek.

Nola eta zergatik jaiotzen zen Hatortxurock?

Oihan. Nik urte bat neukan, baina han zeudenak kontatu digute pixka bat nola izan zen. Garai horretako egoera krudel bati aurre egiteko sortu zen: preso senideek pairatu zuten dispersioa laguntzeko eta preso aldeko aldarria zabaltzeko. Jaialdi txiki bat egitea erabaki zuten, eta denborarekin publikoak erantzun zuen eta antolakuntzak gehiago egitea nahi izan zuen. Handituz joan zen zerbait izan da Hatortxu. Gaur egun arte.

Zein zen testuingurua?

O. Lehenengo egin baino urte batzuk lehenago espainiar estatua dispersio politikarekin hasi

"Hatortxu guztiak gureak bezala sentitzen ditugu"

OIHAN ERKIZA ETA NEREA EUGI HATORTXUROCK-EKO ANTOLAKUNTZAKO KIDEAk Hatortxurock jaialdia agur esaten ari da egunotan Lakuntzan. Auzolanean antolatzen den elkartasun jaialdia izan da

zen eta orduan zigortuak ez ziren presoak bakarrik izan, baizik eta haien senideak ere zigortzen zituzten. Hatortxuren helburua beti izan da sufrimendu hori ahalik eta arinena izatea edo, behintzat, ekonomikoki babes bat emanez laguntzea.

30. edizioa eta azkena. Lehenengo egin ondoren honaino iristea espero zuten?

Nerea. Espero agian bai, baina nahi ez. Askotan esaten dena: beste egoera batengatik lehenago agur esatea espero zen. Behar hori ez egotea, alegia. Kontatu zutenagatik hasieran frontoi txiki bat zen, "lagunen arteko zerbait egingo dugu edo ez dugu egingo". Hasiera batean eromena edo zoroen lana zirudiena Hatortxu bezala ezagutzen dugunean bihurtu da. Frontoi txiki batean egiten zen zerbait eta gero atxikimendu gehiago jaso ditu eta handitzen joan da. Lan talde gehiago sortu behar izan dira beharrak sortzen joan diren heinean, zerbitzu gehiago eman behar izan dira aukera gehiago zeudelako. Kokapena ere aldatzen joan behar izan da, espazio han-

diago bat behar zelako, jende gehiagok nahi zuelako bere altxoa eman; bai txandak egiten bai parte hartzen.

Hirugarren aldiz Lakuntzan.

O. Toki handiago bat behar zen. Normalean egun batekoak edo bi egunekoak egin dira, baina hamargarren, hogeigarren eta 30. Hatortxurocketarako asteburuko plangintza bat egitea planteatu zen, eta orduan zerbait handia behar zen, kanpalekua... Hamargarrena Lakuntzan egin zen eta dirudienagatik herriak oso ongi hartu gintuen eta hogeigarrenarako bueltatu ziren eta 30. edizioan hemen gaude berriz ere.

Auzolanean egiten den jaialdi bat da. Noiztik parte hartzen duzue?

O. Lehenengo txanda uste dut Hatortxu 20an egin nuela. Auzokoei txandak egiteko aukera

"HASIERA BATEAN OINARRIZKO LAN TALDEAK ZEUDEN, ETA DENBORAREKIN SORTZEN JOAN DIRA"

iritzi zitzagun, izena eman nuen, eta horrela hasi nintzen.

N. Nik aurretik txandak eginak nituen, baina 20. edizioan erasoetarako telefonoa jarri zen eta 21. edizioan lehenengo brigadak jarri ziren. Heldu zitzaizkan brigadetan parte hartzeko aukera, eta txanda amaitzerakoan arduradunak gerturatu ziren eta lan taldean sartzeko eskaini zitadaten. Lan taldean sartu nintzen, eta hemen jarraitzen dut.

O. Bai, lehenengoan esaten dizute ez zarela bileretara eta abar joan beharko, eta azkenean zerbait urte beranduago elkarrizketak egiten zaude.

Zenbat lan talde daude? Nola antolatzen da horrelako jaialdi bat?

O. Edizio normaletan hamabi lan talde izaten gara eta honetarako eskaintza berezi batzuk ematen ditugunez (kanpalekua,

"TXANDA EGITEAK BADU ZERBAIT ENGATXATZEN DUENA; POLITA DA SORTZEN DEN GIROA"

parkina eta abar) kopurua handitzen da eta hamasei inguru gara. Lan talde bakoitzak bere betebeharrak eta planifikazioa ditu, eta gu saiatzen gara gure inguruan txandak lotzen. Horretarako ere txandak lan taldea dago, eta horretaz arduratzen da. Edizio honetarako Euskal Herri osoan kontaktuak egiten egon dira eta herri eta hiri handiko auzoetan ere txandak egiteko aukera zabaltzen joan da.

N. Lan taldeak sortzen joan dira. Hasiera batean oinarrikoenak izango ziren eta denborarekin gehiago sortu ziren: gune seguruaren lan taldea, dendako lan taldea ere duela ez hainbeste sortu zen... Hasieran segurtasuna, barra, sukaldea, eszenatokia eta koordinazioa ziren, oinarrikoena. Baina ikusita jendeak erantzuten zuela lan taldeak eta ardurak banatzen joan dira; guztiek ardura hori guztia ez hartzeko. Lan talde pila bat dira, eta jaialdia aste-ko aste bat gelditzen zenean ere taldeak sortu dira: dutxak, kanpalekuak, furgoneta kanpalekua... Lehen ez zeuden, orain sortu dira, eta talde horiek funtzionatzeko arduradunak bilatzen joan behar izan gara ere.

Erronka handia izan da?

O. 7.000 erronka, bai.

N. Erronka bada, eta txanda guztiak betetzea ez da erraza. Baina talde gehienetan badaude pertsonak arduradunen taldean edo antolakuntzan ez daudenak eta urtero errepikatu nahi izaten dute eta gurekin txanda egiten dute. Egia da gurean ere pertsona gehiago sartu direla mesedea eskatzen diegulako, eta urteko mesede horren ondoren gurekin geratu dira.

O. Txanda egiteak badu zerbait engatxatzen duena.

N. Eta polita da sortzen den giroa. Auzolanean egiten da, eta Hatortxu guztiak oso gureak sentitzen ditugu. Elkarrekin hainbeste bilera eta hainbeste denbora pasa ondoren, elkar maite dugu; familia bat gara. Anai-arrebak bezala, tarteka



TALLERES GOÑI TAILERRAK





- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Nerea Eugi eta Oihan Erkiza Hatortxurockeko antolakuntzako kideak, Lakuntzan.

gure liskarrak ere ditugula. Baina gustura gaude.

O. Batzuetan maite, beste batzuetan gorroto...

Jendeak errepikatzen badu, zerbaitengatik izango da, ezta?

O. Bai; bestela ez ziren 30 edizio egingo.

Noiz hasi zineten 30. Hatortxurock prestatzen?

N. Edizio normal batean irailaren hasieran hasiko ginen lehenengo bilerak egiten eta buruan izateko Hatortxurock heltzen ari zela. Baina egia da 30. edizioa hau antolatzeko 29aren pareko hasi ginela. Lan talde batzuk burubelarri hasi ziren (eszenatokia, komunikazioa, azpiegiturak...). Erronka ederra izan dute.

JAIALDIA

Zenbat talde pasa dira Hatortxurocketik?

O. Taldeak ez dakit, baina zenbat txanda egin diren esan dezaket: 30. edizioarekin 30.000 txandalaria inguru izan dira.

N. Taldeei dagokionez saiatu dira ahalik eta talde gehien erre-

pikatu ahal izatea eta Euskal Herriko eszenari toki handi bat ematea.

O. Eta Hatortxuren ibilbideari berari keinu bat egitea garaiko talde ospetsuak zirenak etortzen zirelako eta haien ahalegina eskertzeko agurraren parte izate eskaini zieten.

Talde batzuk ere oholtzara itzuliko dira.

N. Eszenatoki lan taldearen lana izan da, bereziki, baina uste dut talde batzuk nahi izan zutela Hatortxu honetan egon beraien dako Hatortxu eszenatoki garrantzitsu bat izan delako hainbat arrazoiengatik. Askotan aipatzen dute Euskal Herriko talde askorendako Hatortxu lehenengo aldiz oholtza garrantzitsu bat izan dela eta apustu potente bat egin duela euskal eszenarengatik eta tokiko eszenarengatik. Orduan, askorendako garrantzitsua izan da hasieratik toki bat izan dutelako eta bestetik jaialdiak duen ikuspegiagatik eta lan guztiagatik.

"TALDEEKIN HATORTXUREN IBILBIDEARI BERARI KEINU BAT EGIN NAHI IZAN ZAIO"

"MUNDU GUZTIAK IZANGO DU TARTETXO BAT GUSTUKO DUEN KONTZERTU BAT IKUSTEKO"

Horregatik Hatortxun egotea nahi izan dute askok.

Hatortxurock jaialdia gizartearekin batera garatu da?

N. Nik uste dut nabaria dela aldaketa bat ematen ari dela eta gero eta ikuspegi zabalagoa dagoela eta publikoak aukera gehiago dituela bere gustuko kontzertuez gozatzeko. Lehen agian rock estilokoa zen gehiago, baina nik uste dut ikusi dela anitzak garela eta Euskal Herria bezala kolore eta mota askotakoak garela eta horiei erantzun bat emateko geroz eta zabalagoa izan da eskaintza. Mundu guztiak izango du tartetxo bat gustuko duen kontzertu bat ikusi ahal izateko.

Azken aurreko edizioa, 29a, Atarrabian izan zen. Nola bizi izan zenuten?

O. Berezia izan zen. Oraingoan Hatortxuk agur esango du, baina 29. edizioan Atarrabiari agur esan genion eta taldean ere hori izan zen zati garrantzitsu bat. Horretaz gain, nabaritzen zen bertako azkena zela. Jendea gotsu ibili zen, sarrerak azkar bukatu ziren; edukiera ez zen hemen bezain handia, eta jendeak oso ongi erantzun zuen.

N. Bai, jendea bai antolatzaileak hunkituta geunden. Askotan aipatzen genuen: hau azken ez dakit zer da, Atarrabiako azken bilera orokorra, azken... Azkena



30. Hatortxurock hasi aurretik, azken prestaketak. HATORTXUROCK



20. Hatortxurock. ARTXIBOA



20. Hatortxurock. ARTXIBOA



20. Hatortxurock, Lakuntzan. ARTXIBOA

zela eta agur sentsazio hori sumatzen zen.

O. Berezia izan zen, bai. Aurreko urtetako berdina zen, baina aldi berean bagenekien ez zela beste Hatortxurock bat izango.

Agurrerarako prest?

O. Momentuz prestaketarekin ari gara, orduan horretan zentratuta gaude.

N. Ez dakit oso kontziente garen. Aurrekoan esan genuen, muntaketa astean, momentuko lanetan pentsatzen zaude eta egia da jartzen zarela pentsatzen zenbat



'Inoiz ez zaren lekuetara itzultzeko' film laburraren mustutzearen ondorengo talde argazkia. HATORTXUROCK

gelditzen den: aste bat, hiru egun gelditzen dira, bihar hasiko da... Eta bat-bateko gauza bat da. Lanean ari zara, hesiak jarri behar dira, barrak bete behar dira, ez dakit zer margotu behar da eta bat-batean eguna heltzen da eta orduan agian jabetuko gara agur hori iristen ari dela.

O. Momentuz Hatortxurocken hasieran pentsatzen ari gara, eta behin hasitan bukatuko da eta bukatzean ikusiko dugu ea zer gertatzen den.

Disfrutatzeko aukera duzue?

O. Ordutegiaren arabera, baina saiatzen gara tarte libreetan kontzerturen bat ikustera joaten. Ez da berdin laneko esparrutik ikusi edo publikoaren tokitik ikusi. Beti saiatzen gara pixka bat gerturatzen; ni behintzat saiatzen naiz. Ahaztu gabe ardurak ditugula.

N. Gure artean hitz egiten dugu ezer kontzertu ikusi nahi ditugun eta egia da beti dagoela gozatzeko tartetxo bat eta gustuko ditugun kontzertuak edo ekitaldiez gozatzeko aukera. Libre gauden momentuetan kuadrillakoekin trago batzuk hartzeko aukera dugu.

Film laburra

Uztailaren 20an, Lakuntzako kultur etxean, *Inoiz egon ez zaren lekuetara itzultzeko* film laburra mustu zuten auzolanean oinarritutako 25 urtetako ibilbidea baloreari jarri eta "merezi bezala" agurtzeaz gain, "gaur egun preso, errefuxiatu eta deportatu politikoei dituzten beharrak mahaigaineratu" nahi izan dituzte. Dispersioaren amaierarekin "gure artera itzultzen direnean harrera duin bat egiteaz ari gara, egunerokoan aurrera egiteko baliabideak eta sarea bermatzea".

Egoera hau adierazteko hirugarren graduaren egonda bere ilboarekin mendira doan Iñake Irastorza presoaren istorioa erakutsi du ikus-entzunezkoak. Karla Ruiz izan da preso duen izebarekin mendira doan gaztea, "harrera behar horiei erantzuteko testuinguruan aurkitzen dena". Irastorzak aurkezpenean azaldu zuenez, "egoera horretan dagoen preso gailur batean bezala, aurrean amildegi bat duela, imajinatzen du; beldur, zalantza eta antsietatearekin". Antsietate eta beldur horri adierazten ahalegindu da, "pentsatzen dut badakizula kalera ateratzen zarenean gizarte arrotz bat ere topatuko duzula, zu ere ez zarelako sartu zinen bezalakoa. Elkar ezagutze hori nolakoa izango ote den, adibidez, ilobarekin. Iloba ni barruan nengoela jaio zen eta lehenengo aldiak dira horrela gaudela". Horrek proposamena onartzea eraman zituen.

Jaialdiaren filosofiari jarraiki, auzolanean eta borondatezko lanean oinarritu da film laburraren ekoizpenaren prozesua: gidoitik hasi, grabaketekin segi eta azken ekoizpen lanetaraino. Jon Sesma da horren atzean auzolanean ibili denetako bat: "Hatortxurock gauza erraldoi bat da eta Komunikazio lan taldetik kontakizunari ale bat gehiago jarri nahi izan diogu; bultzada bat".

Hitz & Putz galderak

Noiztik zarete Hatortxurockeko antolakuntzako kideak?

Oihan. Karreraren nengoen... 2019tik edo.

Nerea. 2017tik.

Zenbat Hatortxurocken egon zarete?

O. Hau izango da hamaikagarrena. Hamasei urterekin edo hasi nintzen.
N. Nik uste dut 20. edizioan bai egon ginen eta aurretik ere 15ean gogoratzen naiz egon ginela Berri Txarrak entzuten ekainean eta azterketekin geundela eta aurretik ere. Hamargarrenean ez nintzen egon, baina hamabi edo hamahirurako bai. Olentzeroren oparia izaten ziren Hatortxurako sarrerak.

Hatortxurock 30. edizioan entzun nahi duzuen kontzertu bat?

O. Hemeretzi ez nuen aukerarik izan KOP entzuteko, eta agian KOP.
N. Ez dut asko begiratu... Gogoa dut Fermin Balentzia edo Gorka Urbizu ikusteko, baina aldi berean jotzen dute. Gozategi ere, gogoratzen naiz aurrekoan Gozategi mundiala izan zela, plazan.

Zer da Hatortxurockerako ekarri behar den ezinbestekoa?

O. Txanda bat egiteko gogoa eta, bestela, eguzkiak jotzen badu eguzkitik babesteko zerbaite.

N. Eguzkitako crema.

Zer da antolakuntzako kide izatearen onena?

N. Hoberena da ezezagun bat bihurtzen dela zure laguna, kidea eta momentu honetan zure kuadrilla eta familia kide. Familia bihurtzen da egun hauetan.

Eta okerrena?

N. Azken momentuko estresa eta ez garela heltzen ikustea. Azken momentuko arazoak sortzen direnean.

O. Azken momentuko horiek.

Hatortxurockeko dendako produkturik gogokoena?

O. Futbol kamiseta, oso polita da.

N. Nik egia esan ez dut gogokorik... Ez naiz eta dendatik pasa. Horretarako naiz oso txarra. Baina kamisetaren bat erosi beharko.

Zer nahiago duzue jaialdia egun-arratsalde edo gauez?

N. Gauez. Lanean egonda ere, gauez.

O. Arratsaldetik hasi eta bukatu arte.

Interneten edo Google-n egin duzuen azken bilaketa?

N. Eguraldia Lakuntzan.

O. Antolakuntzako zer ikusirik duten gauzetatik kanpo, agian eguraldia ere bai.



Saio guztiak
**DAGOENAKO
ONLINE**





ASTEKOA

RAF ATXURI

Uda beteko beroan

Mark Rutte NATOko buruak dio berun eta burdinazko tronutik ez garela Happyland-en bizi eta horrexegatik defentsarako (uler bedi armagintzarako) dirumultzoak biderkatu behar ditugula. Horixe, ez gara Happylanden bizi, eta beharbada ez gara sekula Zorionerri batean bizi izan, baina uda betean gaude eta gizartearen zatirik handiena laborari ez denez oporraldi garaia dgu honako hau.

Ez gara Happylanden bizi, baina, besteak beste, bidaiari ekiteko tenorea dugu, dela hurbilera, dela urrutira, dela hegazkinez, dela autokarabanaz. Kontua da azken hamarkadetan, bidaiari egitearen premia finkatu dela klase ertainaren muin-muinean eta hartara obligatuak-edo gaude, jaizubi luzetxoetan eta udan barrena.

Bidaia luze edo laburrez hornituak edo bidaiari gabe bedeinkatuak, uda igaroko dugu bero erre eta epelaldien artean, egun argitsuez gozaten saiatuko garela ahalbait gehien. Uda honek badu Lakuntzan gertaldi txit berezia, Hatortxu rock jaialdiaren despedida, alegia, eta Aizpearron Urmuga

UDARA HONEK BADU LAKUNTZAN GERTALDI TXIT BEREZIA, HATORTXU ROCK JAIALDIAREN DESPEDIDA

kontzertuen baitan emanaldi mamitsua, Guardetxetik ez urrun.

Bero galdak jasate aldera, Tour-a izan dezakegu bitarteko bazkalondo zenbaitetan, edota herrietako festak, baita igerilekuko edota hondartzako txolarteak. Liburuen konpainia ezinago tentagarria ere bada tarteka; hartara, Miren Agurne

Meaberen *Amorante frantsesa* thriller poetikoa, Haritz Larrañagaren *Olatuak sutzen direnean* eleberri surflari freskagarria, edo Felix Urabaiaren *Auzo madarikatua* izan daitezke irakurgai eder eta arinak. Mami sakonagoaren bila dabilenarendako berriki zendu den Joxe Azurmendiren edozein liburutan aurki dezake gogoetagarri.

Happylanden ez egon arren, uda zoriontsua!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Berri ona eta berri txarra autopista elektrikoan

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ!

Azken egunetan berri garrantzitsuak izan dira Sakanan zehar igaro nahi dituzten goi-tentsioko lineei dagokienez. Ekainaren 17an udalek Red Eléctricak aurkeztutako eskaera jaso zuten, gure eskualdetik gaur egun igarotzen diren bi goi tentsioko lineak, Itsaso-Orkoi 1 eta 2 (220 kV), lineen itxiera eta Eraispenerako Baimen Administrazioa eskatzeko.

Berri on hau Autopista Elektrikorik Ez Plataformak urte luzez eginiko lanaren lorpena da, linea berri bat eraikitzea linea zaharrekin bateraezina dela baieztatzen du.

Txarra, ordea, hamahiru egun geroago etorri zen:

Estatuaren Energiako Idazkariak Forestaliaren TEBE proiektuari aurre egiteko aurkeztutako Gorako Errekurtsua arbuatu duen komunikazioa. Artikulu honek xehetasunetan saratzeko tarterik ematen ez badigu ere, oinarri gabeko arrazoiak eman dituzte errekurtsua baztertzeko, argudioak baino gehiago aitzakiak direnak.

Aipagarriena, ez dela proiektuen arteko zatikatzerik existitzen, ez REE-ko Itsaso-Castejon/Muruarte, ezta Forestaliaren Kyoko bigarren proiektuarekin, zeinarekin ez du promotorea bakarrik partekatzen, ebakuazio linearen ibilbide gehiena ere partekatzen du, zutoi

berberetan sostengatuz. Erabaki zentzugabe bezain amorragarria.

Hala ere, ebazpenaren zain dago oraindik Forestaliaren Kyoko proiektuaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi errekurtsua. Aukera hori zutik dirau gaur gaurkoz, baina adi egon behar dugu, errekurtsu hau ere baztertzeko badute, Forestaliaren egitasmoak aurrera egiteko ate asko irekiko lirakeelako. Ate horiek itxi egin behar ditugu Tokiko eta foru erakundeen konpromiso partekatuekin, eta horretarako ezinbestekoa da herritarren kontzientziazioa eta mobilizazioa aktibatzea.



OBJEKTIBOTIK

Eraztundutako zuhaitzak

Txoriei eraztunak jarrita, ornitologoek hegaztiei buruzko hainbat informazio eskuratzen dute. Baina eraztunak zuhaitzei? Eraztunetara gerturatu eta jabetu gara makina bat letra dituela. Ez dira ezkontza eraztunak, baizik eta pinuaren prozesionariko larbak harrapatzeko tranpa sistema bat, Olatzagutian jarri dutena. Beldar horien populazioa kontrolatzeko eta murrizteko aukera ematen du pestizida kimikorik erabili gabe.


www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainhoa Elxeberría Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada:

3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:

Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ekintzaileek zortzi enpresa sortu dituzte ekainera arte

Cederna Garalurrek 40 ekintzaile sakandarri laguntza eta aholkularitza eman die epe berean

SAKANA

Cederna Garalur ekintzaile sakandarrei laguntza eta aholkua emateaz arduratzen da. Garalurren Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzuan 40 ekintzaile hartu dituzte aurtengo lehen sei hilabeteetan, haietatik 23 emakumezkoak ziren eta 17 gizonezkoak. Zerbitzuaren jardunaren ondorioz, zortzi enpresa martxan jarri dira eta bederatzita lanpostu sortu dira. Enpresen izaera juridikoari dagokionez, zazpi banakako enpresari gisa eratu dira eta bat sozietate irregular gisa.

Ekintzaileak laguntzeaz aparte, Garalurrek martxan dauden enpresei laguntza eta aholkularitza ematen dizkie. Hala, Garalurren Sakanako Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzura jo duten bi urte baino gutxiagoko antzintasuna duten 15 enpresetako arduradunek, 11 emakumezkoak eta 4 gizonezkoak. Bestetik, bi urte baino gehiagoko antzintasuna duten bi enpresen eskaerak ere hartu dituzte, bi gizonezko ziren horietan buruak. Aldi berean, Garalurrek ekintzaile eta autonomoei zuzendutako lau tutorial telematiko eskaini ditu. Haietan fiskalitatea, fakturazioa eta online tramitazioa landu dituzte.

Zerbitzu hori Ekintzailetza sustatzeko Nafarroa Ekintzailea sarearen barruan dago, eta sarea Nafar Lansarek finantzatzen du.

Harremanetarako

Arbizuko industrialdean dagoen Utzaganen dauka egoitza Garalurrek, Sakanako Garapen Zentroan. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara hartzen dituzte ekintzaileak, beti ere, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta. Harremanetan jartzeko 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Oskia) telefonotara hotsegin edo sakana.admon@cederna.es edo sakana@cederna.es e-postetara idatz daiteke.

Espazio bat elkarte gisa egokituko du Zuhatzuk

Kontzejuaren jabetza den lokal bat egokitzeko lanen deialdia egin du. Espazioak gaur egun beharrezkoak diren obrak behar ditu herriarendako gizarte zentro gisa erabili ahal izateko, egungo araudia betez

ZUHATZU

Zuhatzuko Kontzejuak San Martin kalearen 14. zenbakian eraikin bat du. Beheko goiko bi solairuetan etxebizitza bat du, egun alokatuta dagoena. Behekoan, berriz, elkarte gisa erabili du. Hango instalazio guztiak zaharrituta geratu dira, eta ez dituzte betetzen ezarritako gutxienekoak, batez ere zerbitzu higienikoei, sukaldari, aireztapenari eta isolamenduari dagokienez. Lanek 112.627,84 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Inbertsioari aurre egiteko Zuhatzuko Kontzejuak 60.000 euroko dirulaguntza lortu du Cederna Garalur elkartearen bidez. Kontratua



Etxe horren beheko solairuan Zuhatzuko elkarte gisa erabili da. KONTZEJUA

bereganatzen duenak bost hilabete izanen ditu egitekoak despeditzeko, apirilera eginda egon beharko dute.

Gaur egun zuhatzuarrek plazan dagoen kontzeju etxea elkarte gisa erabiltzen dute, baina ez du sukaldari. Egokitu nahi den espazioaren azalera erabilgarria 79,60 m²-koa da, eta lokalaren azalera eraikia 103,75 m²-koa. Kontzejuaren nahia da aisialdi edo gizarte zentro bat sortzea, sukaldaria, barra-gunea, komunak eta gainerako espazioan egongela eta jangela izanen dituena. Lorategirako sarbidea aprobetxatzea, bertan udan egoteko gunea bat sortzeko, barrualdetik erraz iristeko moduan. Oro har, egin beharreko obrak espazioak birbanatzeko beharrezkoak dira, sukaldaria eta komunak ia leku berean mantenduz, barra-eremu bat gehituz eta gainerakoak egongela eta jantoki gisa utziz.

Lorategira ematen duten leihoak handitu egingen dira eta zierreko fatxadetan leiho bakarra egon beharrean hiru izanen dira. Gainera, lorategirako sarbidea egokituko da. Leiho guztiak berrituko dira.

Aldamioak Uharte Arakilgo eskolan

Ikastetxe publikoaren eraikineko ingurutzatzaile termikoaren birgaitze energetikoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak. Azaroaren 10erako despedituta egon beharko dute. Lan gehiago bidea dira

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak eskola birgaitzeko lanak Abilita Construcción y Rehabilitación SM enpresari eman dizkio 529.367,65 euroren (BEZ barne) truke. Lanak eginda, eskolako energia eskara eta kontsumoa murriztuko da. Gainera, ikastetxearen energia kalifikazioa gaur egungo D mailatik B izatera pasako da. Bestalde, eskolan 30kwn-eko behe-tentsioko instalazio elektriko egiteko eta eguzki plakak jartzeko kontratua Eseki LSari eman dio udalak, 30.014,59 euro (BEZ barne) ordainduko ditu. Azkenik, eskolan biomasa galdara jartzeko lanak ere egingen



Eskolako fatxada aldamioketara eta pareko plaza zatian aparkalekua antolatuta.

dira. Hiru lanek finantzatzeko udalak Dus 5000 programatik dirulaguntza bana jaso du.

Bestetik, San Joan plazan, iturriaren eta eskolaren arteko espazioan, autoek non aparkatu dezaketen zehazteko murrak margotu ditu zoruari. "Inguru hori antolatu nahi izan dugu, nolahi aparkatutako autoekin eskola garraioko autobusak arazo dezente zituelako buelta emateko. Banaketa enpresetako furgonetek eta Hondakin Zerbitzuko kamioiek ere arazoak zituzten handik pasatzeko", azaldu du Txomin Uharte Baleztena alkateak. Gaineratu duenez, "eskolako lanengatik ez dira ikastetxe pareko aparkaleku plazak margotu". Lanak despeditzen direnerako utzi du egiteko hori Uharte Arakilgo Udalak.

Aurki hasiko direnak Itxesi eta Errekabitarre kaleetan aurreikusitako lanak dira. Euri uren eta ur beltzen sareak bereiztuko dituzte eta, aldi berean, herria urez hornitzen duen sareko hodia aldatuko dute. Lanek 540.000 euroko aurrekontua dute. Udalak gobernuaren 200.000 euroko dirulaguntza du.

FESTAK



BAKAIKU 2024ko Bakaikuko festetako auzatea. ARTXIBOA



BAKAIKU 2024ko Bakaikuko festetan. ARTXIBOA

ARAKIL

UZTAILAK 25 ostirala BAILARAREN EGUNA

09:00 Dianak, herriz herri.
11:45 Omenaldia bailarako jaioberriei, Itxasperrin.
12:30 Sakanako harrijasotzaile eskolaren harrijasotzaile erakustaldia eta txingak, Itxasperrin.
13:30 Kalejira, Egiarretara.
14:30 Bazkaria eta bazkalostea: mus eta partxis partidak eta puzgarriak.
17:00 El Gran Ritxarsonekin musika.

ETXARREN

UZTAILAK 25 ostirala
11:30 Pilota txapelketa.
14:30 Bazkari autogestionatua.
17:00 Ginkana.
19:00 Txupinazoa.
19:15 2024an eta 2025ean jaiotakoen festetako zapia ematea.
19:30 Herri jokoak.
19:30-21:30 DJ.
22:00 Herri afaria.
23:30-05:00 DJ.

UZTAILAK 26 larunbata
11:30 Hamaiketakoa.
11:00-14:00 Puzgarriak eta apar festa. Oharra: Txozna eta iturri arteko zonaldeak kotxeak kendu.
18:00 Txokolate jana.
18:30 Lorena Arangoaren antzerkia.
19:30 Euskal dantzen emanaldia.

20:00 Hiruko saskiratzeen txapelketa.
20:00-21:30 DJ.
21:30 Bingoa.
22:00 Zezensuzkoa eta suak.
22:30 Herri afaria.
23:30-05:00 DJ.

UZTAILAK 27 igandea.

11:00 Meza.
11:45 Hamaiketakoa trikietekin eta herri argazkia.
12:30 Herritarren arteko herri kirolak.
18:00 Pilota jaialdia.
20:15 Los Tenampas taldearekin mexikarrak.
21:30 Bingo eta zozketak.
22:00 Zezensuzkoa eta suak.

UZTAILAK 28 astelehena

11:30 Hamaiketakoa.
12:30 Ping Pong txapelketa.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Mus eta Briska txapelketa.
Haurrendako jolasak.
00:00 Gaixoa ni.

BAKAIKU

UZTAILAK 25 ostirala

12:00 Meza.
13:30 Auzatea, japoniar bonbak eta buruhandiak.
13:30 Duo Amets: Iñaki & May.
16:00 Eskolen mailako Bakaikuko Santio Saria eta Krono Igoera, Aralar Txirringarritza Taldeak antolatuta; ginkanak, udaletxe parean, eta lasterketak, herri gunean. Ondoren, haurren eta kimuen mailako krono igoera,

Barrenkaletik Iturgian kalera.
20:00 Auzatea, Bakarrekotxea elkarteak eskainia.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 Tekno gaua, gazte asanbladak antolatuta: DJ Apao, Dyinkan eta DJ Omar Carrancho, gaztetxean.
00:30-02:30 Ilargi taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 26 larunbata

12:00 Adinekoen omenezko meza.
12:30 Haur eta gazteendako jolasak, lau urtetik gorako haur eta gazteei zuzenduta: zaku lasterketa, puxikak lehertzea, botilak urez bete, sagarrak hozkatzea, aulki jolasak, arrautzak garriatzea eta bizikletarekin zintak hartzeko ginkana. Oharra: bizikleta eramatea gomendatzen da.
13:30 Auzatea, japoniar bonbak eta buruhandiak.
Chingones de la Rencle taldearekin mariatxia.
14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia, elkartean.
ROCK eguna: bazkaria, eskoletako belardian.
15:00 Bazkaria, gazte asanbladak antolatuta, Aiztin.
17:00 Rock eguna: Mantis taldearen kontzertua.
Musika eta mozkor jolasekin herriari buelta, gazte asanbladak antolatuta.
18:00 Kiki-Koko-Moko pailazoan *Tuturututu, pailazo bihurtu* ikuskizuna, Gabriel Aresti barnetegiaren eskutik.
18:00 Pilota partiduak:

Mikel Zabalza-Iker Rabaz / Jon Navarro-Suhar Arrizabalaga
Hodei Loidi-Tasio Arbizu / Lahiotz Agirre-Jon Zabalo
Iker Loidi / Ion Ander Okiñena
Seniorrak: Xanti Lopez de Zubiria / Iker Garziandia
20:00 Auzatea Gabriel Aresti barnetegiaren eskutik.
20:00-22:00 Eztitan taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-03:00 Eztitan taldearekin dantzaldia.
01:00 DJ Pibikensekin musika, gazte asanbladak antolatuta, gaztetxean.

UZTAILAK 27 igandea

12:30 Puzgarriak, eskolako belardietan.
13:00 Kantuz: Bakaiku, Arbizu, Etxarri eta Altsasu.
13:00 Zarata txarangarekin kalejira.

13:30 Auzatea.
17:00-20:00 Puzgarriak, eskolako belardian.
18:00 Mojitada tropikala, gazte asanbladak antolatuta, gaztetxean.
19:00 Ping pongeko finala.
Badminton txapelketa eta irabazlearen apustua, gazte asanbladak antolatuta, plazan.
20:00 Auzatea trikitalariekin eta buruhandiak.
22:00 Zezensuzkoa.
Herri afaria.
23:30 Kaos Rural taldearen kontzertua, gazte asanbladak antolatuta, gaztetxean.
00:00-03:30 Iratzar taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 28 astelehena.

13:00 Jaian Jai.
13:30 Auzatea jubilatuen eskutik.
15:00 Mozorro bazkaria.
17:00 Bazkaloste musikatua, gazte asanbladak antolatuta.





OLAZTI 2024ko Olaztiko festen hasieran erraldoiak. ARTXIBOA



OLAZTI La Cigarra txaranga 2024ko festen hasieran. ARTXIBOA

20:00-22:00 Tximista taldearekin dantzaldia.
20:00 Auzatea, japoniar bonbak eta buruhandiak.
21:30 Bokatada, gazte asanbladak antolatuta, gaztetxean.
00:30-02:30 Tximista taldearekin dantzaldia.

OLAZTI

SANTA ANA FESTAK

UZTAILAK 25 ostirala

12:00 Hamabietakoa, San Migel elkarteak eskainia.
12:00-14:00 Haur eta gazteendako jolas parkea, Memoria Historikoaren parkean.
13:00 Swingtronics taldearen kontzertua, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin udal frontoian).
14:30 Haur bazkaria, Memoria

Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
15:00 Herri bazkaria, Maisuenea gaztetxeak antolatuta, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
15:30-18:30 Haur eta gazteendako jolas parkea.
17:00-19:00 Broken Brothers Brass Band, Memoria Historikoaren parketik.
19:00 *Gala Cincense* Bambolea konpainiaren ikuskizuna, futbito pistan (eguraldi txarrarekin Erburua kiroldegian).
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa.
20:00-22:00 Eztitan taldearekin musika.
21:00 Bonba japoniarrak, kultur etxetik.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 La Txama eta The Marteens taldeen kontzertua, futbito pistan (eguraldi txarrarekin udal frontoian). Ondoren, reggeton gaua, OGAK antolatuta, gaztetxean.
00:30-03:30 Eztitan taldearekin musika.

UZTAILAK 26 larunbata

11:30-14:30 Escape Caravana Itineraria konpainiaren familiarterko ikuskizuna, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Erburua kiroldegian).
11:30 Erraldoiak, buruhandiak eta Altsasuko gaiteroak, Domingo Bados eskolatik.
12:00 Hamabietakoa, Santa Ana elkarteak eskainia.
13:00 Moonshine Wagon



ETXARREN 2024ko festetan herri argazkia egin zuten. ARTXIBOA

taldearen kontzertua, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin udal frontoian).
14:30 Jubilatuta eta adinekoen bazkaria. Ondoren, Duo Imperial. Untxi kalderete lehiaketa, Memoria Historikoaren parkean. Oharra: parte hartu nahi dutenek 11:00etan Sutegi gimnasioan joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera.
17:00-20:00 Escape Caravana Itineraria konpainiaren ikuskizuna.
19:00 *Tomate, puro tomate* Victor Norberto Avalos Barbieri Tomate Clownen ikuskizuna, Intsumisioaren plazan (eguraldi txarrarekin udal pilotalekuan).
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa.

20:00-22:00 Joselu Anaiak.
21:00 Japoniar bonbak, kultur etxetik.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30 Mariatxi A toda madre taldearen kontzertua, futbito pistan (eguraldi txarrarekin udal frontoian).
00:30-03:30 Joselu Anaiak taldearekin musika.

UZTAILAK 27 igandea

11:00 Historiaurrera bisita talilerak, Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatuta, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Eskolako frontoian).
12:00 Hamabietakoa, Kamiogaina elkarteak eskainia.
13:00 Voces Riberas taldearen

kontzertua, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin udal frontoian).
18:00 Zesta punta erakusketa: kinielak amerikar erara eta hastapen tailerra, Erburua kiroldegian.
20:00 Hegaluze parrillada, Vicente Argomaniz plazan.
20:00-22:00 Aiko erromeriarekin musika.
21:00 Japoniar bonbak, kultur etxetik.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30 ¡A la fresca! De Improviso konpainiaren ikuskizuna, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin udal frontoian).
00:30 DJ Raiztirekin musika.



Kale Nagusia 50, Olazti
948 56 28 55 | 650 08 32 23
www.carniceriapako.com

A.A.I. ETXARREN

Aranburu frontoiaren aldamean saskibaloia pista dago, festetan publikoz beteko dena. Edozeinek parte har dezake hiru puntuko saskiratze txapelketan. Denek animatu behar dute.

Nolaz hiruko saskiratze txapelketa bat?

Duela 15 edo 20 urteko auzolan hartan saskibaloia kantxako marraz margotu behar izan genituen. Horretan geundela bururatu zitzaidan hiruko saskiratze txapelketa egin genezakeela festetan.

Lehen urtean zer harrera izan zuen?

Etxarrendarren gogoko gertatu zen. Halakoak batzuetan funtzionatzen dute arraroak direlako. Horretaz aparte, saria dago. Gainera, saria jatekoa bada, jendea horren bila doa. Burlatan albaitaritza klinika bat dut eta klinikak babestuko zituela sariak bururatu zitzaidan. Kalitate goreneko hestekiak edo gaztak izaten dira sariak, lehen biendako. Jendeak saria etxera eramaten du, ez dut banatzen ikusi (barrez).

Nola jokatzeko da hiruko saskiratze txapelketa bat?

Bikoteka eman behar da izena. Txapelketa hasi aurretik eman behar da izena frontoiko paretan dagoen zerrendan. Bietako batek baloia saskira jaurti behar du. Besteak baloia jaso eta botatzen duenari pasatzen dio berriro bota dezan. Minutu batean ahalik eta saskiratze gehien egin behar dira. Ondoren, normalean, berdinketak hausteko jaurtiketak daude, bikote txapelduna eta txapeldunordea izan arte. Noizbait gertatu da denak sartzen dituen super-jeinu bat etorri izana eta guztiak kaleratu gintuen. Bestalde, batzuk saiatu izan dira bi bikotetan izena ematen. Baina hori ezin da. Bikote batean izena emanda dagoenak ezin du beste batean izenik eman.


6,75 metroko marraztik egin behar dira baloi jaurtiketak?

Hemen ez dugu distantzia horretara. Saskiaren inguruan hirukoaren marra irudikatzen duen arrastoaren atzetik bota behar da, edozein tokitatik. Baina entrenatu dutenez, parte hartzaileak ahalik eta zentratuen jartzen dira. Egia da araudiarekin ez garelako zorrotzak bota behar duenak lau urte baditu. Halakotan nahi duen tokitik bota dezake, eta jende guztiaren animoak jasotzen dituzte.

"Animatzen duen talde ederra sortzen da hemen"

LEO GAINZA GAINZA HIRUKO SASKIRATZEEN TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

Etxarren festetan hiruko saskiratze txapelketa dago iragarrita garilaren 26ko, larunbateko, 20:00etarako. Guztia prest da



Leo Gainza Gainza baloia eskuan eta saskia atzean dituela.

Aurten beste auzolanen bat egin beharko duzue...

Joan zen urtean kaleak berritze-lanekin batera pistako zorua berritu zuten. Baina marrak marraztuko dira. Gainera, boleboleko kantxa ere egin dute. Azken horren sarea kendu beharko da txapelketarako.

Herrian saskibaloia zaletasunik bada?

Neska-mutilak bai, jolastera etortzen dira. Baina hiruko saskiratze txapelketa eragingarria da. Eta festak gerturatu ahala gazteak maiztasun jakin batekin hemen ikusten dituzu. Haietara diote jolasten ari direla. Baina, benetan, hirukoak praktikatzen ari dira, txorizoa edo gazta eskuratzeko. Baita gauez ere.

Eta saskiratzen, zer moduz?

Denetarik dago. Andres Zabalek saskibaloian jokatzeko du, baina "atzera begira" botatzen

"FESTAK GERTURATU AHALA GAZTEAK MAIZTASUN JAKIN BATEKIN HEMEN IKUSTEN DITUZU"

"JENDEA TXAPELKETARA MOZORROTUTA ETORTZEA SUSTATU BEHARRA DAGO"

parte hartzen uzten diogu. Duela pare bat urte 11-12 urteko mutiko bat etorri zen. Guztiak gainditu gintuen. Talderen batean jokatzeko zuten, eta poz-pez zegoen mutikoa.

Beraz, adin guztietako parte hartzaileak daude?

Hala da, uztaira baloiarekin iristen ez diren haurretatik hasi eta iristeko trebe ez diren aitona arte. Adin guztietakoek parte hartzen dute. Berdin da generoa eta jatorria. Garrantzitsuena ongi pasatzea da.

Zuk parte hartzen duzu?

Ahal badut bai, seme-alabaren batekin. Eta bakarren bat sartzen badut, iruzurra izan dela, txapelketa azpijokoa dagoela esaka hasten dira. Irabaziko bagenu, iruzurrarena ziurra litzatekeela esanen lukete (barrez). Oso ongi pasatzen dugu.

Parte hartzaileek lehiaketa serio hartzen dute?

Jendeak ongi pasatzera etortzen dela esaten du. Nahi dutena esaten dute, baina jendea entrenatzera etortzen da. Argi harrotasunarekin! Txorizoa eskuratzeko gogo gehien dutenak aitona dira (barrez).

Jende askok ematen du izena txapelketan?

Apika, 30 edo 40 bikotek ematen dute izena. Txapelketa jendea batzen du. Animatzen duen talde ederra sortzen da hemen. Jaurtiketak egiten ari direnean musika ez da entzuten.

Txapelketa hasi zenetik, aldaketarik izan da?

Azken hiru urtetan gertatutakoa miragarria izan da. Duela hiru urte emakumezko bikote bat hala moduz saskibaloia jokalariz jantzita etortzen hasi ziren. Mozorrotuta etorri eta guztia ematen dute. Hurrengo urtean beste bi emakumezko mozorrotuta ziren. Iraultza eragin izan dute. Jendea txapelketara mozorrotuta etortzea sustatu beharra dago. Ongi pasatzera etor daitezela. Hala etortzen direnak bazterrak izugarri animatzen dituzte.

Idea bururatu eta hasieratik antolatzen ari zara.

Lekukoa pasatzen ari naiz. Orain Dani semeak antolatzen du, baina nire zuzendaritzapean (barrez). Duela pare bat urte "L"-a jarri nion, baina dagoeneko gidabaimena badu. Berak deitzen dute parte hartzaileak, berak du kronometroa... Nahiko ongi egiten du mutilak. Ni inguruan ibiltzen naiz.



Larunbatean Berako lehen jardunaldian parte hartu zuen Etxarri Aranatzeko taldea. BIHOTZ BERISTAIN

Herriz Herrikoan goitik hasi dira

HERRI KIROLAK laz sortu zen Etxarri Aranatz herri kirol taldea. Bigarren lehiaz ari dira Herriz Herri Txapelketan. Berako lehen jardunaldian bigarren eta lehen postuan sailkatu ziren, eta gaur, Elizondon, bide beretik segi nahi dute, finalera sailkatzeko

Maidor Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Andra Mari ikastolan herri kirol taldearen trebatu izanak “zerikusi handia” izan zuen 2024an Etxarri Aranatz herri kirol taldea sortzeko garaian. “Iaz adin ezberdinetako zenbait gazte el-

kartu ginen, herri kirol taldearen zerbait egiteko gogoia zegoelako. Ikastolan sokatira, zakua, koxkolak, trontza... halakoetan ibili izan ginen, eta pentsatu genuen: aurten Nafarroako Herriz Herri Txapelketan izena emango dugu?

Eta hortik sortu zen Etxarri Aranatz herri kirol taldea” gogoratu du Ander Lakuntzak. “Etxarri Aranatz herri kirol taldearen zerbait egiteko gogoia zegoelako. Ikastolan sokatira, zakua, koxkolak, trontza... halakoetan ibili izan ginen, eta pentsatu genuen: aurten Nafarroako Herriz Herri Txapelketan izena emango dugu?”

lako. Gazte asko prest zeuden, eta talde polita sortu genuen” gaineratu du Mattin Altzelaik.

Taldea osatzea ez zitzaien oso zaila egin. “Jende asko dago ikasturtean beste kirol bat egiten duena eta gero herri kirol taldera animatu dena. Azkenean beti dago norbait” dio Adrian Jakak. Horrela, hamasei herri kirolariz osatutako taldea dute, herri kirol federazioan fitxa dutena. Lehiaketa egunetan hamabi inguru doaz, eta kirolarien ahalmenaren arabera taldea egokitzen dute. “Beran Mattinek ezin izan zuen egon, ezkontza zuelako, eta Hodei Amezkuak aritu zen. Uztailaren 25ean, Elizondon, Mattinek parte hartuko du eta Hodeik atsedean hartu. Horrela moldatzen gara” gaineratu du Jakak.

Herriz Herri Txapelketa

Nafarroako Herriz Herri Txapelketan bi proba konbinatu osatu behar dira. Lehen proba konbinatuan koxkol biltzea (15 koxkol, hirutan), zakua (zakua-ekin plazari bi itzuli eman; gizonetakoek 40 kiloko zakua eta emakumeetakoek 30 kilokoak), aizkora (gizonek metroko enborra erdibitu eta emakumeetakoak oinekoko), korrika eta trontza probak egiten dira. Proba mistoa da; korrikako proban emakume batek eta gizon batek parte hartu behar dute aldi berean (kirolari bakoitzak hiru itzuli ematen dizkio plazari), eta trontzako bikotea emakume batek eta gizon batek osatu behar dute (enborrari lau epai). Gainontzeko probetan talde bakoitzak emakumezkoa edo gizonetakoak aukeratzen du, nahieran. Bigarren proba konbinatua txinga eramatea eta ingude altxatzea da. Txingetan talde bakoitzetik

gizonetako batek (50 kiloko txingak) eta emakumezko batek (25 kiloko txingak) parte hartu behar dute, 10 plaza ahalik eta azkarren egiteko. Ingude altxatzean gizonetakoek 18 kiloko ingudea erabiltzen dute eta emakumezkoek 9 kilokoak, eta minutu batean ahalik eta altxaldi gehien egin behar dituzte.

Aurten zortzi talde ari dira lehiatzen Herriz Herrikoan: Araxes, Arraioz, Basaburua, Berriozar, Irurita, Txantrea, Ultzamaldea eta Etxarri Aranatz. Bakoitzak bi jardunaldi jokatu behar ditu. Etxarri Aranatzek uztailaren 19an jokatu zuen Beran, eta gaur, uztailaren 25ean, Elizondon jokatu behar du. Lan ona egitea espero dute, abuztuaren 17ko Burlatako finalean egiteko.

Behetik gora

2024ko Herriz Herriko Txapelketan zazpi talderen artean bosgarren sailkatu zen Etxarri Aranatz. “Joan zen urtea proba modukoa izan zen. Hasi ginenekin egin beharreko herri kirol talde baten banatu ginen. Bigarren jardunaldia Etxarri Aranatz festetan jokatu genuen, eta jendea asko gustatu zitzaion”.

Aurten nabarmen hobetu dute. “Denbora gehiagorekin hasi gara entrenatzen, eta proba bakoitzeko egokia den kirolariaren profila bilatzen saiatu gara. Adibidez, Adrian arina da, azkarra; beraz, korrikako proban ari da. Mattin eta Hodei indartsuak direnez, txingetan. Talde nahiko osoa gara, orekatua. Onak, guapoak, majoak eta sinpatikoak gara. Guztia dugu” dio, txantxetan, Ander Lakuntzak. Agerikoa da oso harreman ona dutela. “Taldearen ezaugarri nabarmena dugun aparteko giroa da” nabarmendu du Jakak.

Familiak Atsedeen hartzeko zentroa

ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN 🏠

Narriadura kognitiboa izan edo ez duten adinekoen zaintzan ari diren familiei zuzendutako laguntza.



**PREZIOA: 50€ eguna
350€ hilabete osoa**
(larunbata, igandea)

INSKRIPZIOAK: 948 563850
ORDUA: 10:00etatik 18:00etara.
Deskontuak hilabete osoa kontratatzen bada



Entrenamenduak, frontoian

Aurten Aste Santuan bildu ziren lehenengoz, baina maiatzetik aurrera serioago entrenatzen hasi ziren. Norbera bere kabuz aritzen da, baina astero bizpahiru aldiz geratzen dira taldean aritzeko, Euskalerrinari pilotalekuan. "Andra Mariko Mikel Senar beti dago gu laguntzeko prest. Bereziki trontzako teknika erakusten digu eta erraztasunak ematen dizkigu: tokia uzten digu, materiala...". Iaz beharrezko materiala lortzen aritu ziren. "Txingak, zakuak... dena. Ingudeko materiala guk egin genuen, tramankulu bat sortuta (kar-kar). Aurten entrenatzera geratzen gara eta listo" dio Lakuntzak.

Proba gogorrak

Herri kirol modalitate bakoitzak badu berea. "Niretako gogorre-na txingak dira, ez baita broma. 50 kiloko txingak eramateak meritu handia du" dio Lakuntzak. "Bakarrik txingak mugitzea, kosta egiten da" arrazoia ematen dio Jakak. "Txingena gogorra da, baina eskatzen duen denborarengatik eta teknikagatik aizkora oso zaila iruditzen zait" dio, aldiz, Altxelari txingalariak. Trontza "oso teknikoa" dela esaterakoan ados daude hirurak. "Kontuan hartu behar da gainontzeko taldeetako trontzalari askok ia bizi guztia daramatela trontzan, eta oso onak dira. Trontzan denbora asko gal daiteke. Gure trontzalariak ez dute horrenbeste entrenatzen, soilik bizpahiru hilabetez, eta horregatik meritu handia dute".

Aizkoran Aritz Oiarbide Erdozia dute taldekide, fitzaketa ona. "Jakina, erdoziatarren lana aprobetxatu beharra dago" dio, irribarrez. Ezin da lehen



Nerea Argüelles bikain aritu zen ingudearekin. BIHOTZ BERISTAIN



Maddi Beltza, trontzan. BIHOTZ



Hodei Amezkua, 50 kiloko txingekin. BIHOTZ



Ander Lakuntza, zaku proban, Beran. BIHOTZ BERISTAIN

mailako aizkolaria izan, horregatik Jon Erdoziak ezin du aizkoran aritu. "Aritzi ez diogu inoiz kategoriaz igotzen utziko; debekatuta", txantxa gehiago. Jon Erdoziak Maddi Beltzarekin osatzen du bikotea trontzan. Hirurak uztailearen 19an Beran jokaturako Herriz Herriko lehen jardunaldian lehiatu ziren. Haiekin batera, Oier Aierdi kokkoletan aritu zen, Ander Lakuntza eta Aratz Mariñelarena zakuan, Adrian Jaka eta Ane Gorritxo korrikakoan, Nerea Argüelles eta Aitor Oiarbide ingudean eta Garazi Artieda eta Hodei Amezkua txingetan. Basaburua, Txantrea eta Ultzamaldea izan zituzten aurkari.

Beran, ederki

Beran lan ederra egin zuten sakandarrek. Lehen proba konbinatuan (kokkolak, zakua, aizkora, korrika eta trontza) bigarren sailkatu zen Etxarri Aranatz (24:19), Ultzamaldea lehenarekin lehia oso estua izan eta gero (23:44). Bigarren proba konbinatuan, ingude altxatzean eta txinga eramatean, Etxarri Aranatz lehena izan zen, gizonak eta emakumeek egindako lana batuta, ingudean guztira 117 altxaldi egin zituztelako eta txingetan 20 plazak 4:35 minututan bukatu zituztelako. "Oso kontentu gaude. Ongi hasi ginen. Esan bezala, trontza zailena izaten da, gainontzeko bikoteak oso onak direlako, baina Jon eta Maddi ikusgarri aritu ziren; meritu handiz, bigarrenak izan ziren, Ultzamaren atzetik. Horrela, bukaeraraino Ultzamarekin oso berdinduta egon ginen, eta bigarren izan ginen. Eta txingetan eta ingudearekin zer esanik ez; dena oso ongi aterazen" dio hirukoteak, pozik.

Gaur, Elizondon

Herriz Herrikoa udako txapelketa denez, bestelako planekin lotzen dute. "Berako probarako asteburu osorako landetxea hartu genuen Zozaian, eta asteburu pasa bikaina egin genuen. Baztandarren Biltzarra ezagutu genuen, sekulako festa". Gaur, uztailearen 25ean, Etxarri Aranatzek Herriz Herri Txapelketa bigarren jardunaldia jokatuko du Elizondoko Iriarte frontoian, 17:30ean. Araxes, Arraioz eta Irurita izango ditu arerio. "Elizondoko festak dira. Hatortxu Rock delako, bestela asteburu pasa egingo genuke".

Taldeari eustea

Hasierako ligaxkan egiten duten lana gehituta erabakiko da zein lau taldek jokatuko duten abuztuaren 17ko finala, Burlatan. "Martxa onean gaude, gustura. Finalerako sailkatzen bagara, primeran, baina bestela, ez litzateke ezer pasako, gure helburua ongi pasatzea delako. Kontua da gu oso exigenteak garela; gure artean pikatzen gara, eta lana ongi egin nahi dugu, guregatik" dio Jakak.

Helburua herri kirol taldeak denboran segida izatea da, ikastolatik aterata, gazteek non aritu izan dezatela. "Ea hobetzen joaten garen eta ea jende gehiago animatzen den taldera. Ez soilik Etxarrikoak, beste herrikoak ere bai, Sakanan zaletasun handia dagoelako. Atea zabalik dugu. Jende asko etorriko balitz, agian izena aldatu eta "Sakana" jarri beharko genioke, nork daki!" dio Altxelariak. "Soilik baldintza bat jartzen dugu: parranderoak izatea. Hori jasota dago kontratuan, eta proba bukatuta kaña bat hartzearena, baita ere" egin du irribarre Lakuntzak.

Gure ogiak
ezagutzen dituzu, orain
gozotegia
deskubritu



DUREKIN 1964- GAZTEKIN
Amaya
OKINDEGIA
🍞 🥞

678 323 403
• Iruia Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19 •

ALTSASU

Haize berriak hartzeko parada

FUTBOLA Athletic-eko Oier Gastesi Serrano atezain altsasuarrak Getxoko Arenas Club-en jokatuko du, utzita, eta Villarreal-eko Joseba Perez Fernandez lakuntzarrak Sevillako Real Betis Balompie-rekin fitxatu du

M.B.G. SAKANA

Udan aldaketa handiak izaten dira futbol taldeetan. Jokalarien dantza honek bi jokalaria sakan-dar hartu ditu bete betean.

Athletic B taldeko Oier Gastesi Serrano atezainak (2003-10-30, Altsasu) lehen RFEF lehen mailara igo den Getxoko Arenas Club taldean jokatuko du 2025/2026 denboraldian, utzita. Joan zen urtean Gastesik hamalau partida jokatuz zituen Athletic B taldearekin lehen RFEF mailan. Denboraldi hasieran, tartean Unai Simonen eta Julen Agirrezabalaren bajak zirela, talde nagusiarekin konbokatuz zuten. Halaber, UEFA Europa League txapelketarako talde gorri-zuriko B zerrendan egon zen.

Joseba Perez Fernandez jokalaria (2008-03-05, Lakuntza) 2022an fitxatu zuen Villarreal taldearekin. Kadete eta junior mailan aritu da Villarrealen, eta Valentziako selekzioan baita ere. Hegaleko jokalaria ezkerari aurtentz kontratua bukatzen zitzaien. Alaves eta Betis taldeen eskaintzak zituen, eta Sevillako taldearen alde egin du, "beti dagoelako etxera itzultzeko aukera". Asteartean egin zuen lehenengo entrenamendua Ohorezko Mailako Betis taldearekin, eta oso pozik eta gogotsu dago.



Oier Gastesik lehen RFEF mailan segiko du, baina Getxoko Arenasen. ATHLETIC CLUB



Joseba Perez, Valentziako selekzioarekin, laranjaz. UTZITAKOA

Maite Urriza, Monte Rosan

MENDI LASTERKETAK

Uztailaren 17an Monte Rosa Walser Waeg By UTMB mendi lasterketa ezaguna jokatu zen Italiako Alpeetan, Aosta bailaran. Maite Urriza leregi etxarriarrak 50 K distantzian parte hartu zuen (39,8 km, 2.730 m +), beste 1078 korrikalarirekin batera. 267 emakumeren artean etxarriarra 53. postuan sailkatu zen (7:18:55).



MONTE ROSA WALSER WAEG



FERNANDO BENGOTXEA

Bargagain, mendizaleen festa

MENDIA Altsasuko Mendigoizaleak taldeak denboraldi bukaerako festa ospatu zuen igandean Bargagainen. Suziria 9:00etan jaurlita abiatu ziren mendizaleak, eta Basaluze dorrean geldialdia egin eta gero, Bargagainera iritsi ziren (1.157 m). Sebastian Hualde "Txan" apaizaren mezarekin batera, auzatea, ardoa eta dantzak ez ziren falta izan.



Torneo egunak Sakanan

ARETO FUTBOLA Egunotan makina bat areto futbol txapelketa eta torneo jokatzen ari dira Sakanan: Lakuntzako haurrek prestatutakoa, Lakuntzako Biltoki gazte futbito txapelketa, Bakaikuko haurren torneo... denetarik. Agerikoa dena da areto futbolarekiko zaletasuna handia dela eta makina bat talde sortu direla han eta hemen aritzeko.

PORTUKO

Gosaririk hoberenak Portuko okindegian

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

FLORES

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499

Nafarroako berezko txistorra

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 25

ALTSASU Kontzertua.

A toda madre mariachi taldearen kontzertua. Udako kultur programazioaren barruan.
19:30ean, Foru plazan.

LARUNBATA 26

URRITZOLA Kontzertua.

Udako arpa jaialdiko ikasleen kontzertua.
19:00etan, elizan.

IRURTZUN Antzerkia.

Venecia Mio Cuore Irurtzungo antzerki taldearen antzezlanaren emanaldia.
22:00etan, Gernika plazan

ASTEAZKENA 30

IRURTZUN Udako zinema.

Udako zinema: Dragoi jagolea euskarazko filmaren emanaldia.
22:00etan, Barazkiguneren.

OSTEGUNA 31

IRURTZUN Kontzertua.

Amaiur eta Aritzen kontzertua.

20:00etan, Pikuxar plazan.

OSTIRALA 1

ALTSASU Pilota jaialdia.

CaixaBank Masterseko jaialdia. B Serieko final laurdenetako ligaxka: Zubizarreta III – Bikuña / Senar – Tolosa; A serieko final laurdenetako ligaxka: Ezkurdia – Izkueta / Larrazabal – Rezusta. Sarrerak: 20 eurotik aurrera (entradasfronton.com).
21:15ean, Burunda frontoian.



PIKUXAR

IRURTZUN Cocoli Aretaren Pirograbatuaren erakusketa.
Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.

HTXROOK

UZTAILAK 25 ostirala

12:30 Gora Musika, Herriye! eszenatokian.
13:30 Azken ostiral nazionala eta mosaiko erraldoia.
Erroka:1600 pertsona biltzea, Haurren Txokoa (futbol zelaia).
16:00 Xutik, Herriye! eszenatokian.
17:45 Hoge Berrero, Herriye! eszenatokian.
18:00 Koma, Hator Hator eszenatokian; Sukena, Auzolana! eszenatokian.
19:05 Bulego, Etxera! eszenatokian; Potato, Elkartasuna eszenatokian.
19:30 Afu, Herriye! eszenatokian.
20:10 Kaotiko, Hator Hator eszenatokian; Autobus Magikoa, Auzolana! eszenatokian.
21:15 Latzen, Etxera! eszenatokian; Nogen, Elkartasuna eszenatokian.

22:00 Delirium Tremens, Herriye! eszenatokian.
22:20 Deskontrol eta Arkada Social, Auzolana! eszenatokian.
22:30 ZETAK, Hator Hator eszenatokian.
23:35 Fillas de Cassandra, Elkartasuna eszenatokian.
23:45 Su Ta Gar, Etxera! eszenatokian.
00:00 Trikiteens, Herriye! eszenatokian.
00:40 Odei, Auzolana! eszenatokian.
01:00 Brigade Loco, Hator Hator eszenatokian.
01:45 Crim, Elkartasuna eszenatokian.
02:05 Kaleko Urdangak, Etxera! eszenatokian; DJ Bull eta DJ Jotatxo, Herriye! eszenatokian.
02:50 Añube, Auzolana! eszenatokian.
03:10 Bad Sound, Hator Hator eszenatokian.
03:55 Xiberoots, Elkartasuna eszenatokian.

04:15 La Txama eta Su Flakofonki, Etxera! eszenatokian.
05:00-06:30 DJ Plan B, Auzolana! eszenatokian.

UZTAILAK 26 larunbata

12:45 Porrotx, Herriye! eszenatokian.
16:00 On, Herriye! eszenatokian.
17:45 Muga Zero, Herriye! eszenatokian.
18:00 Dinamita, Hator Hator eszenatokian; Mirua, Auzolana! eszenatokian.
19:05 Non Servium, Etxera! eszenatokian; Las ninyas del corro, Elkartasuna eszenatokian.
19:30 Odolkiak ordainetan, Herriye! eszenatokian.
20:10 Betagarri, Hator Hator eszenatokian; KOP, Auzolana! eszenatokian.
21:15 Gatibu, Etxera! eszenatokian; Kristal kolpatuak, Elkartasuna eszenatokian.
22:00 Bourbon Kings, Herriye! eszenatokian.

22:20 Buitraker, Auzolana! eszenatokian.
23:35 Bengo, Elkartasuna eszenatokian.
23:45 Banda Bassotti, Etxera! eszenatokian.
00:00 Amaiur, Herriye! eszenatokian.
00:40 Anestesia, Auzolana! eszenatokian.
01:00 Never Surrender, Hator Hator eszenatokian.
01:45 Tribade, Elkartasuna eszenatokian.
02:05 Skabidean, Etxera! eszenatokian.
02:05-03:30 DJ Fresa Morango, Herriye eszenatokian.
02:50 Herdoil, Auzolana! eszenatokian.
03:10 Sune, Hator Hator eszenatokian.
04:00 Chuleria, joder! Elkartasuna eszenatokian.
04:15 Svetlana, Etxera! eszenatokian.
05:00-06:30 DJ Reimy, Auzolana! eszenatokian.

UZTAILAK 27 igandea

10:30 Ene Kantak, Herriye! eszenatokia.
12:00 Iñigo ETS, Etxera! eszenatokia.
13:00 Ekitaldi nagusia: Etxera.
14:00 Taxers, Etxera! eszenatokira; Roba Estesa, Auzolana! eszenatokia.
15:00 Fermin Balentzia, Herriye! eszenatokia.
15:50 Gorka Urbizu, Hator Hator eszenatokia; Auxili, Elkartasuna eszenatokian.
16:10 Tremenda Jauria, Etxera! eszenatokian; Inadaptats, Auzolana! eszenatokian.
17:15 Ana Tijoux, Hator Hator eszenatokian; Moises no duerme, Elkartasuna eszenatokian.
18:15 Onki Xin, Herriye! eszenatokian.
18:20 Gozategi, Etxera! eszenatokian; Green Valley, Auzolana! eszenatokian.
20:00-21:15 La Jodedera, Herriye! eszenatokia.

Er **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.



guaixe
irratia 107.3FM

UZTAILAK 28 - ABUZTUAK 1

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
10:15 Prentsaren azalak
10:20 Albisteak eta kirolak
10:30 Hizketan
11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
14:00 Errepikapena

On line
guaixe.eus/irratia/zuzenean

IRAGARKI SAILKATUAK

LAN ESKAINTZA
Cederna-Garal elkarteak euskara teknikari bat kontratu nahi du: Informazio gehiago eta hautaketa-prozesuari buruzko informazioa web orrian.

IKASTAROA
Adinekoak digitalizazioan trebatzeko hiru ikastaro Lakuntzan: Irailean izango dira, baina, izen emateko epea zabalik dago. Ikastaroak Lakuntzako liburategian izango dira.

IKASTAROA
Euskarazko oinarritzko ikastaroa Lakuntzan: Sakanako Mankomunitateak antolatuta, lastaitetik abendura bitartean, goizez, baina, ordutegia molda daiteke. Informazio gehiago Sakanako Mankomunitatean.

OHARRA
Esaera zahar bilketa martxan Lakuntzan: Aiupenanik eus-

kara taldeak jaso nahi ditu eta lakuntzarrak bilketaekin bat egitera deitu ditu.

Lakuntzako festetako Play-back lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik

Odoi emateak abuztuaren zehar: Altsasun abuztuaren 6 eta 7, 17:00etatik 21:00etara eta 8an 9:30tik 13:15era, Uhart Arakilen abuztuaren 12an 16:45etik 21:00etara.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Euskara hutsezko Udalekue-tara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bideratuta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohainik dira, animatu!!

Uhart Arakilgo Udalak herriko kultura, kirol eta gizarte entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du: Deialdiaren oinarriak www.uhartarakil.eus web orrian.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du. Informazio gehiago www.etxarriaranaz.eus web orrian.

Altsasuko Udalak irabazi asmorik gabeko entitateendako laguntzen deialdia zabaldu du: Deialdiaren oinarriak www.altsasu.net web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

BAZTERRETIK
IRATI PELLEJERO MARIN

Printzipio aktiboen funtzioak

FUNTZIOA?	ZEINEK ERABIL DEZAKE?	NOIZ?	
AZIDO SALIZILIKOA	Larruazala esfoliatzen du, zelula hilak kenduz. Orban ilunak murriztu eta larruazalaren testura hobetzen du.	12 urtetik aurrera, aknearen prozesuan lagundu ahal izateko. Portzentaiak kontuan hartu behar dira, narradura sorrazai ahal du.	Gauean, azala garbitu ondoren eta astean 1-3 aldiz astean.
AZIDO GLIKOLIKOA	Antioxidatzaile ugari ditu, UV izpien kaltea sendatzen laguntzen dutenak.	Azal gehienetan egokia den esfoliatzaile kimikoa da, baina larruazal oso sentikorretan edo erreaktiboen kontu handiarekin ibili behar da. Bereziki onuragarria da tonu itzal eta testura latzekoendako.	Gauean, azala garbitu ondoren, eta beste produktu batzuen aurretik. Egunez garrantzitsua da eguzki babeslea erabiltzea.
AZIDO HIALURONIKOA	Larruazala berritzen laguntzen du, hidratatzen, elastikotasuna hobetzen eta larruazala indartzen. Modu naturalean dagoenez, oso bateragarria da larruazalarekin.	Egokia da ia edozein pertsonarentzat, baina bereziki onuragarria da azal lehorra, heldua edo zahartze zantzuak dituztenendako. Azal sentikorra dutenentzat ere oso onuragarria da.	Egunez naiz gauez erabil daiteke eta beharren arabera egunero erabil daiteke.
RETINOLA	Kolagenoaren eta azido hialuronikoaren ekoizpena estimulatu du, zimurrei aurre egin, poroen tamaina murriztu eta orbanak argitu.	25-30 urtetik gorako pertsonentzat, baina larruazalaren premia individualen arabera alda daitezke.	Erretinola erabiltzeko maiztasuna zure azalaren tolerantziaren eta kontzentrazioaren arabera da. Gomendatzen da pixkanaka hastea, astean behin edo bitan aplikatzen. Maiztasuna gradualki moldatu daiteke eta beti gauez.
C BITAMINA	Antioxidatzaile indartsua da, eguzkiak eta zahartzeak eragindako kalteak tratatzeko eta prebenitzeko, Hiper pigmentazioarekin laguntzen du.	Pertsona gehienek erabil dezakete, larruazal mota edozein dela ere, larruazal sentikorra dutenak edo alergiak izateko joera dutenak ere bai. Kontuan hartu behar da produktuaren kontzentrazioa eta larruazal banaka nola erreakzionatzen duen.	Egunez eta gauez erabil daiteke, egunero erabil daiteke.
NIASINAMIDA	Propietate seboerregulatzaile eta antiinflamatorioak ditu, aknea eta larruazal koipetsua borrokatzen du. Larruazala sakon hidratatzen duen osagai bat da, eta zelula berrien sorrera indartzen du, aurpegia zikinkeriarik gabe mantentzeko.	Niazinamida nerabegarotik has daiteke erabiltzen, larruazala zaintzeko errutina batean.	Egunez naiz gauez erabil daiteke, eta egunero bitan ere posible da.

DUELA 25 URTE...



Mendeari omenaldia

Bautista Etxarren Otamendik ehun urte bete zituen egunean, garilaren 31n, urritzolarrek eta senideek omenaldia egin zioten. Aurrena plaka bat eman zioten. Otamena izan zen eta Iruñetik etorritako kantariak abestu zuten. Etxarren Arakilgo azken euskaldun zaharretako bat zen, euskara etxean ikasi zuenetako bat. Hori dela eta, Arakilgo hizkeraren lekukotasuna jaso nahi zuten hainbat hizkuntzalariren bisita jaso zuen.



IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Herri kirolen komediak

'Aranburugoitiarrak' antzezlanaren sortu dute Xabier Artieda eta Lorena Arangoa antzezle sakandarrek. Protagonistak herri kiroltako tradizio handiko familia bateko anai-arrebak dira, eta erakustaldia egiten saiatzen dira "baina ez zaie ongi ateratzen"

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Lorena Arangoa irurtzundarra eta Xabier Artieda etxarriarra *Aranburugoitiarrak* dira elkarrekin sortu duten ikuskizunearan. "Elkarrekin lan egiteko gogo aspaldi geneukan; batak bestearen lanak ikusi ditugu, eta gogo geneukan". Artiedak kontatu duenez egun batean "beste istorio" baten entsegu batean kointziditu zuten, eta Arangoak zerbait egitea gustatuko litzaiokeela esan zion; "baita niri ere", erantzun zion Artiedak. Baina oso lanpetuta zegoenez horretan geratu zen. "Urtarrilean deitu nion eta esan nion: nahi baduzu udarako zerbait sor dezakegu". Arangoak baietz esan zuen eta *Aranburugoitiarrak* prestatzen hasi ziren.

Hiru hilabetez ikuskizun berria sortzen aritu dira, Artiedak azaldu duenez. Lanak anai-arreben istorioa kontatzen du: "*Aranburugoitiarrak*. Familia batetik datoz non tradizioa den herri kirolak egitea. Badago leinu bat eta beraiek ere probatu nahi dute". Hortaz iristen diren herrira, emanaldia egiten duten herria, eta herri kirolak egiteko behar duten guztia prestatzen dute: esatari batek nortzuk diren, nondik datozen, familia ospetsu batetik datozela eta abar kontatzen du. Lehenengo aldiz plaza horretan debutatu behar dute". Orduan, erakustaldiarekin hasten dira, eta ez da nahi duten bezala ateratzen: "Dena gaizki ateratzen zaie".

Herri kirolak

Antzezlanaren "gag-etan" banatuta dago: "Komedia denez eta klown lengoia duenez lortu dugu batak bestea moldatzea; elkarri entzun diogu eta, esan digutenez, eszenan oreka ona da"; ikusleek



Xabier Artieda eta Lorena Arangoa 'Aranburugoitiarrak'. UTZITAKOIA

herri esaten badute "ona" dela esan du Artiedak.

Bi antzezleek izan zuten hasierako ideia herri kirolen inguruan zerbait egitea izan zen: "Grazia egiten zigun. Komedia aldetik ongi sartzen da oso gurea den zerbait delako". Herri kirolak "seriotasun handiz" hartzen direla esan du Artiedak, "eta nahi genuen ikuspuntu barrengarri hori sartu".

Dramaturgia bat bazuten, gero beste bat sortu zen... "Nortzuk ziren bi pertsonaia hauek, zer nahi zuten eta abar sortu behar genuen". "Denetarik" pentsatu zutela gaineratu du antzezleak, esaterako, hasiera batean lapurrak izan behar ziren: "Motxila batzuk lapurtzen zituzten eta bertan herri kiroltako arropak zeudela konturatu dira. Herrian agertzen dira eta disimulatu behar dute". Horrelakoak egiten lortu zuten dramaturgia sortzea. Bestetik, herri kiroltatik "joko gehien" eman zezaketen arloak ere aukeratu behar zituzten. "Ni gehiago dokumentatu behar izan naiz. Argazkiak eta bideoak ikusi behar izan ditut ikusteko pertsonaiak mola mugitzen diren, eta izaera eta giroa ezagutzeko, gero zentzugabekeriak sartu ahal izateko". Arangoaren kasuan harri jasotzaile ibilia zela eta diziplina gehiago ezagutzen zuela esan du Artiedak, "harria jasotzeko egiten diren mugimenduak erakutsi dizkit ere. Sasoi dago".

Bi antzezle

Herri kirolak "oso serio" hartzen den gauza bat dela esan du Artiedak, beraz, nola hartu du publikoak gaiak barre egitea? "Oso ongi. Barrez lehertzen dira. Azkenean, klown kodigorekin sartzen dira. Bi gixajo hauek ikusten dituzte, saiatzen direla baina ez dutela ezer lortzen, eta orduan beraiekin bat egiten dute, enpatizatzen dute, eta sufritzen dute ere". *Aranburugoitiarrak* antzezlanaren bukaera "polita" duela esan du Artiedak: "Buelta bat ematen dio egoerari; pertsonaiei kariñoa hartzen diezu".

Arangoak eta Artiedak antzezleko estilo propioa dute. Arangoa klown da eta Artieda antzerki fisikoan murgiltzen da. "Nik esango nuke amankomunean dugula eszenatokian jendearekin jolasten dugula, komedian mugitzen gara, eta ongi ulertzen dugu erritmoa zein den jendea-

rekin komedia aurrera eraman ahal izateko", azaldu du Artiedak. Desberdintasunen harira etxarriarri *slapstick comedy* egitea gustatzen zaio, hau da, komedia egiteko gorputza erabiltzen du eta Arangoak "klown moduan bere estilo propioa du". Biak "moldatu" direla gaineratu du Artiedak: "Badago momenturen bat non elkarri entzun behar diogun; antzerkiaren lehenengo irakaspena da hori". Hortik aurrera, baten txisteak barrealdia sortzen badu besteak itxoin behar duela badakiela azaldu du antzezleak: "Oso ongi entzun diogu elkarri". Hasieran "beldur" pixka bat izan zutela aitortu du, ez zekitelako nola erantzun zuten jendeak, baina Artiedan mustu zuten eta "oso ongi" joan zen.

Emanaldiak

Aranburugoitiarrak antzezlanaren mustu ondoren udan zehar hainbat emanaldi dituztela esan du Artiedak: "Hamabi bat emanaldi ditugu, momentuz; ikusteko aukerak badaude".

Antzezle etxarriarrak Kutxartean (Enre Cajas) Paraiso Teatro konpainiarekin egin duen antzezlanarekin bi urteko bira egin du eta orain proiektu berriak ditu, "gelditu gabe". Abuztuaren 23an bere ikuskizun berria mustuko du Oinak Hodeietan jaialdian Nafarroako Gobernuaren herri txikietara kultura eramateko programaren barruan: "Formatu txikian mugitzen naiz, Fiesta fiesta Party party ikuskizuna sortu dut. Musikal bat da eta pixka bat denetarik egiten dut". Musikaren inguruan "disfrutatze" ikuskizun bat dela azaldu du etxarriarrak.

Producciones Maestras konpainiarekin ere irailean antzezlan berria prestatzen hasiko dira, eta urriaren aurrestreinatuko dute eta abenduaren 13an, Baluartean, mustuko dute. "Intentsiboa izango da; astelehenetik ostiralera, goizero". Besteak beste, Gorka Pastor musikaren sortzailea izango da eta Edurne Ibañezek jantzieria egingo du.

"KOMEDIA DA ELKARRI ENTZUN DIOGU ETA, ESAN DIGUTENEZ, ESZENAN OREKA ONA DA"

"Antzerkiak ematen diguna aberasgarria da"

Ihabarko Udako Antzerki Taldean parte hartzen dute Jaione Astiz Errok eta Miren Huarte Jakak. Egitasmoa 2008an jarri zen martxan, Jon Barbarin antzezleak sustatuta. Aurten abuztuaren 22an eta 24an, ostirala eta igandea, izanen da

Erkuden Ruiz Barroso IHABAR

1 Noiztik parte hartzen duzue?

Jaiione. 2008an izan zen lehenengo emanaldi txikia, oso-oso xumea, baina oso polita, eta ordutik parte hartzen dut.

Miren. 2009tik parte hartzen dut; lehenengoan ezin izan nuen parte hartu.

2 Zergatik parte hartzen duzue?

J. Urtero pentsatzen dut hurrengo urtean ez dudala parte hartuko, baina beste alde batetik pena ematen du. Sekulako giroa sortzen da eta antzerkiak herriari ematen diona oso-oso aberasgarria da eta, aldi berean, horretan parte hartzea ere aberasgarria da.

M. Gustatzen zait eta oso gustura nago; ongi pasatzen dut. Emanaldiaren eguna, aurretik sortzen den giroa, testua ikasteko prezioa...

3 Nola sortu zen?

M. Jon Barbarin, zuzendaria, kontzejuan zegoen eta *Correpueblos* deitutako egitasmo bat zegoen herri txikietara antzerkiren edo ipuin kontalariren bat ekartzan zuena; Jon antzerkiaren munduan zegoenez antolatzeaz arduratu



Jaione Astiz eta Miren Huarte, Mikelekin, antzezlan batean. UTZITAKOIA

behar zen, baina pasatu zitzaion eta bere akatsa izan zenez jendea animatuko balitz zerbait prestatuko zuela esan zuen. Jendea animatu zen.

J. Buzoneatu zen, eta hogeiren bat animatu ginen.

4 Nolakoak dira entseguak?

M. Entseguak kaotikoak dira. Bat ez dagoela, bestea lehenago joan behar dela... Estresarekin, kaotikoak eta dibertigarriak.

J. Lanetik ateratzen zara eta entseguan burua beste leku ba-

tera eramaten duzu, eta primeran pasatzen duzu.

5 Zenbat entseatzeko duzue?

M. Azkeneko hilabete hau topera. Hurrengo astean egun bat entseatzeko dugu; gero urduritasuna hasten da eta azkeneko astean egunero.

J. Gauza da, sanfermin inguruan bilera bat egiten dugula eta mesedez antzerkia zein den eta paperak banatzeko eskatzen dugu, eta ez dugu nahi dugun bezain azkar lortzen. Hor daude ere atrezzoak eta ingeniariak deitzen ditugunak ere. Zuzendariak ideia bat esan, eta egiten dute.

M. Bakoitzak badu bere tokia; entseguetatik at jendea gauzak egiteko gelditzen da. Ez da bakarrik testua ikastea. Bi hilabete hauetan buruan antzerkia dugu.

6 Produkzio handiak egiten dituzue, ezta?

M. Hasierakoek testu gehiago zuten. Lehenago hasten ginen, eta atrezzoak ez zen horrenbeste. Herriko kokapen desberdinetan egiten genuen. Orain batzuk testua dute, beste batzuek koreografia... Jende asko gara. Egia da eszenatoki handiak muntatzen ditugula. Aurreko urtean Jaione tirolina batetik agertu zen.

J. Eskatzen duena egiten dugu; batzuetan esaten diogu ez flipatzeko, baina egiten dugu. Eta hilabete batean.

7 Gidoietan zeresana duzue?

J. Normalean dena egina ematen digu, baina batzuetan inprobisaziorako tokia uzten du. Den-dena ez dago lotuta.

M. Obra egingarria pentsatzen du. Ideiak eta ekarpenak emateko aukera dago.

8 Zein da egin duzuen lanik gogokoena?

M. Errazago daukat zein ez nukeen berriro egingo.

J. Denek daukate bere gauza. Batzuetan pertsonaia nagusia izan gara, beste batzuetan bat baino gehiago izan gara... Pertsonaia guztiak oso ongi egon dira.

9 Nolakoak dira emanaldiak? Urduri jartzen al zarete?

J. Sakanatik ere jendea dator. Ez dakit zenbat jende gerturatzen den, baina jendea gustatzen zaio. Horrelako herri txiki bat, emanaldi bat egitea eta herrikoek parte hartzen dute; gustura egoten gara eta oso-oso ongi pasatzen dugu. Hori ikusten da. Urduri jartzen naiz, baina uste dut pixka bat beharrezkoa dela.

M. Aurpegi batzuk identifikatzen ditut, baina osotasunean ez. Baina jendea badator, eta noiz izanen den galdetzen hasi da. Atzean nagoenean esaten diot nire buruari: zertarako sartzen zara! Behin ateratzean pasatzen da.

10 Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuen?

J. Gehien, sortzen den konplizitate.

M. Normalean harremantzen ez zaren jendearekin elkartzeko zara, eta giro polita sortzen da. Gutxien ondoren emanaldien bideoak ikustea.

11 Aurten zer?

M. Badago jendea aurretik jakitea eta ikustea gustatzen zaiona, eta beste batzuk kalean entseatzeko dugunean azkar pasatzen dira. Aurten abentura bat izanen da.

J. Bidaia abentura bat.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena _____

Abizenak _____

NA/IFZ _____

Helbidea _____

Herria _____

Telefono zenbakia _____

Emaila _____

Bankuko kontu korrante zenbakia: _____

ES _____



948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus